ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko martxoaren 11, astelehena • 30 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**92/2019 Foru Agindua, martxoaren 1koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen 2018rako informazio aitorpenaren 289 eredua onesten duena, aldatzea**

Foru agindu honen helburua da aldatzea egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinaren arabera, finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen urteko informazio aitorpena (289 eredua) aurkeztu behar duten.

Ikuskatze zerbitzuak horren inguruan emandako txostena ikusirik,

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren irailaren 27ko 529/2017 Foru Agindua, elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen urteko informazio aitorpenaren 289 eredua onartzen duena**

Bat. 2018an aurkeztu behar diren 2017ko aitorpenetarako, Foru Agindu honetako I. Eranskinaren bidez ordeztu egiten da I. Eranskina (Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinaren arabera, finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitorpena aurkeztu behar duten).

Bi. 2018an aurkeztu behar diren 2017ko aitorpenetarako, Foru Agindu honetako II. Eranskinaren bidez ordeztu egiten da II. Eranskina (Herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, azaroaren 13ko 1021/2015 Errege Dekretuak, elkarrekiko laguntzaren esparruan hainbat finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen egoitza fiskala identifikatzeko eta haien inguruko informazioa emateko betebeharra ezartzen duenak, eranskinaren VIII. atalaren D.4 idatz zatian aipatutako «Jurisdikzio parte-hartzailetzat» jotzen direnena).

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA HERRIALDE EDO JURISDIKZIO PARTE-HARTZAILEAK

Herrialde edo jurisdikzio bat II. Foru Agindu honetako eranskinean agertzen diren herrialde edo jurisdikzio parte-hartzailetzat joko da, baldin eta herrialde edo jurisdikzio horrek informazioa automatikoki trukatzeko akordioa abian jarri badu apirilaren 30a baino lehen, aurreko ekitaldiko informazioa igortzeko.

Horiek horrela, herrialde edo jurisdikzio batek informazioa automatikoki trukatzeko akordioa aktibatu duela joko da, baldin eta, besteren artean, hala agertzen bada Ekonomia Lankidetzarako eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA), finantza kontuen informazio truke komun eta estandarizatuko sistema (CRS) dela eta, horri buruz Interneteko bere atarian argitaratzen duen zerrendan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Agindu hau indarrean jartzen denean indargabeturik geratuko da ekainaren 28ko 339/2006 Foru Agindua, zeinaren bidez onetsi baitzen Europar Batasuneko beste estatu batzuetan eta hitzarmen bidez informazioa trukatzeko akordioa ezarrita duten beste herrialde edo lurralde batzuetan egoiliar diren pertsona fisikoek urtean lortutako errenten urteko aitorpenaren 299 eredua.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean eta lehendabiziko ondorioak izango ditu 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu behar diren aitorpenenetarako.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 1a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*
*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*
*TERESA VIGURI MARTÍNEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## I. ERANSKINA

Egoiliar fiskalen herrialde edo jurisdikzioen zerrenda, zeinaren arabera, finantza entitateek, elkarrekiko laguntzaren esparruan, finantza kontuen urteko informazio aitorpena (289 eredua) aurkeztu behar duten.

| Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluaren a) letra (*) | | Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluaren b) eta c) letrak (*) |
|---|---|---|
| EB | EB-REKIN HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK | AMAC-EN ERAGINPEAN IZANGO DIREN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK |
| 2018 eta hurrengoak | 2018 eta hurrengoak | 2018 eta hurrengoak |
| Alemania | Liechtenstein | Antigua eta Barbuda |
| Austria | San Marino | Saudi Arabia |
| Belgika | Andorra | Argentina |
| Bulgaria | Monako | Aruba (Herbehereak) |
| Zipre | Suitza | Australia |
| Kroazia | | Azerbaijan |
| Danimarka (**) | | Barbados |
| Eslovenia | | Belize |
| Estonia | | Bonaire (Herbehereak) |
| Finlandia | | Brasil |
| Frantzia | | Brunei |
| Gibraltar (Erresuma Batua) | | Kanada |
| Grezia | | Txile |
| Hungaria | | Txina |
| Irlanda | | Kolonbia |
| Italia | | Korea |
| Letonia | | Costa Rica |
| Lituania | | Curaçao (Herbehereak) |
| Luxenburgo | | Ghana |
| Malta | | Granada |
| Herbehereak (**) | | Groenlandia (Danimarka) |
| Polonia | | Guernesey (Erresuma Batua) |
| Portugal | | Hong Kong |
| Erresuma Batua (**) | | India |
| Txekiar Errepublika | | Indonesia |
| Eslovakiar Errepublika | | Islandia |
| Errumania | | Cook uharteak (Zeelanda Berria) |
| Suedia | | Faroeak (Danimarka) |
| | | Man uhartea (Erresuma Batua) |
| | | Israel |
| | | Japonia |
| | | Jersey (Erresuma Batua) |
| | | Libano |
| | | Macao |
| | | Malaysia |
| | | Maurizio |
| | | Mexiko |
| | | Montserrat (Erresuma Batua) |
| | | Niue |

| Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluaren a) letra (*) | | Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluaren b) eta c) letrak (*) |
|---|---|---|
| EB | EB-REKIN HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK | AMAC-EN ERAGINPEAN IZANGO DIREN HERRIALDEAK ETA JURISDIKZIOAK ETA ALDE BIKO HITZARMENA DUTEN HERRIALDEAK |
| 2018 eta hurrengoak | 2018 eta hurrengoak | 2018 eta hurrengoak |
| | | Zeelanda Berria |
| | | Norvegia |
| | | Pakistan |
| | | Panama |
| | | Errusia |

| | | |
|---|---|---|
| | | Saba (Herbehereak)<br>Samoa<br>Saint Kitts eta Nevis<br>San Eustakio (Herbehereak)<br>San Martin (Herbehereak)<br>Saint Vincent eta Grenadinak<br>Santa Luzia<br>Seychelleak<br>Singapur<br>Hegoafrika<br>Turkia<br>Uruguai |

*(*) Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretua, zeinak ezartzen baitu identifikatu beharra dagoela finantza kontu jakin batzuen titulartasuna daukaten edo kontu horiek kontrolatzen dituztenen zerga egoitza eta haiei buruzko informazioa eman beharra dagoela elkarrekiko laguntzaren esparruan.*

*(**)AMAC-en eraginpean izango diren herrialdeen eta jurisdikzioen eta alde biko hitzarmena duten herrialdeen zutabean agertzen diren lurraldeak izan ezik [Otsailaren 21eko 6/2017 Foru Dekretuaren 4. artikuluaren b) eta c) letrak].*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## II. ERANSKINA

*Jurisdikzio parte-hartzaileen zerrenda*

| | | |
|---|---|---|
| Albania | Finlandia | Malaysia |
| Alemania | Frantzia | Malta |
| Andorra | Ghana | Maurizio |
| Aingira (Erresuma Batua) | Gibraltar (Erresuma Batua) | Mexiko |
| Antigua eta Barbuda | Granada | Monako |
| Saudi Arabia | Grezia | Montserrat (Erresuma Batua) |
| Argentina | Groenlandia (Danimarka) | Nauru |
| Aruba (Herbehereak) | Guernesey (Erresuma Batua) | Niue |
| Australia | Hong Kong | Norvegia |
| Austria | Hungaria | Zeelanda Berria |
| Azerbaijan | India | Herbehereak |
| Bahrain | Indonesia | Pakistan |
| Bahamak | Irlanda | Panama |
| Barbados | Man uhartea (Erresuma Batua) | Polonia |
| Belgika | Islandia | Portugal |
| Belize | Kaiman uharteak (Erresuma Batua) | Qatar |
| Bermuda (Erresuma Batua) | Cook uharteak (Zeelanda Berria) | Erresuma Batua |
| Brasil | Faroeak (Danimarka) | Txekiar Errepublika |
| Brunei | Marshall Uharteak | Eslovakiar Errepublika |
| Bulgaria | Seychelleak | Errumania |
| Kanada | Turkak eta Caicoak (Erresuma Batua) | Errusia |
| Txile | Birjina uharteak (Erresuma Batua) | Samoa |
| Txina | Israel | Saint Kitts eta Nevis |
| Zipre | Italia | San Marino |
| Kolonbia | Japonia | San Martin (Herbehereak) |
| Korea | Jersey (Erresuma Batua) | Saint Vincent eta Grenadinak |
| Costa Rica | Kuwait | Santa Luzia |
| Kroazia | Letonia | Singapur |
| Curaçao (Herbehereak) | Libano | Hegoafrika |
| Danimarka | Liechtenstein | Suedia |
| Arabiar Emirerri Batuak | Lituania | Suitza |
| Eslovenia | Luxenburgo | Turkia |
| Estonia | Macao | Uruguai |
| | | Vanuatu |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.03.11 06:30:27 Z